

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hezkuntza Sarietarako hautagaitzak aurkezteko epea irekita dago

Nafarroako ikasle, irakasle, zuzendari eta zentro publiko aipagarrienei emango zaizkie

Martes, 17 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak datorren ekainaren 30era arte

[Hezkuntza Sariak](#) eskuratzeko hautagaitzak aurkezteko epea ireki du. Sari horiek Foru Komunitateko ikasle, irakasle, zuzendari eta zentro publikoei emango zaizkie, haien ibilbidea aitortzeko.

Zehatz esanda, gehienez sei diploma emango zaizkie 2010-2011 ikasturtean DBHko graduatu titulua lortu ondoren graduondoko mailak egiten dituzten ikasleei. Modu horretan, ikasle horien erantzukizun indibiduala, meritua eta ahalegin pertsonala saritu nahi dira.

Era berean, gehienez lau irakasle sarituko dira aktiboan daudenen edo 2010-2011 ikasturtean erretiroa hartzen dutenen eta irakaskuntza-eginkizunean nabarmendu direnen artean. Horren bidez, irakasle horien lanbide-ibilbidea saritu nahi da, meritua, ahalegina, dedikazioa eta erdietsitako hezkuntza-lorpenak kontuan hartuta.

Horrez gain, beste lau diploma emango zaizkie zuzendaritza-eginkizunetan nabarmendu diren irakasleei eta hezkuntza-sistema hobetzen lagundu duten ikuskatzaileei. Bi kasuetan, aktiboan dauden edo 2010-2011 ikasturtean erretiroa hartzen duten profesionalei bideratuta daude.

Amaitzeko, sei ikastetxe publiko sarituko dira kategoria hauetan: Haur eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa, eta Lanbide Heziketa eta besteak. Horren bidez, zentro horien ibilbidea aitortu nahi da.

[Proposamenak modu telematikoa aurkez daitezke](#). Kasuen arabera, hautagaitzak zuzendaritza-taldeek, eskola-kontseiluek eta gurasoen elkarteek, hezkuntzarekin lotutako beste gizarte- eta lanbide-entitate batzuek eta Hezkuntza Departamentuak proposatu behar dituzte.

Sariak 2011-2012 ikasturteko lehen hiruhilekoan emango dituzte, xede horretarako antolatutako ekitaldian.